UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

2024IKIE0010

MINTZALAGUN PROGRAMA KOORDINATU ETA KUDEATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO PLEGU TEKNIKOAK

AURKIBIDEA

1. **ZERBITZUAREN BEHARRA ETA XEDEA**
2. **BALDINTZA TEKNIKOAK**
3. **AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK**

1. ZERBITZUAREN BEHARRA ETA XEDEA

Mintzalagun programa Udal Elkartearen nahiz udaletako euskara sustatzeko plan orokorretan txertatuta dago. Programa honen helburua da euskara praktikatzeko aukera eskaintzea euskalduntze prozesuan hizketarako gaitasuna garatzen ari diren pertsonei. Horretarako, bidelari (euskaldun berri) eta bidelagunez (euskaldun zaharrez) osaturiko 3-5 kideko taldeak egiten dira, astean behin ordubete edo ordu eta erdiz euskara praktikatzeko. 2023-24 ikasturtean, adibide gisa, 100 pertsona inguruk parte hartu dute programan, 27 taldetan.

Gisa horretako programak eskualde gisa dira bideragarriak eta, horregatik, Udal Elkarteak kudeatzen du, udalekin elkarlanean. Udal Elkarteak, ordea, ez du behar adina giza baliabide mintzalagun programa bere langileekin koordinatu eta kudeatzeko, ondorioz, lehiaketa ireki bidez kontratazio prozesua martxan jarri du.

2. ZERBITZUAREN BALDINTZA TEKNIKOAK

Mintzalagun programa koordinatzeko eta dinamizatzeko zerbitzuak ezaugarri hauek izango ditu:

- Epea:
  - Mintzalagun programa 2025eko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra gauzatuko da. Beste bi urtez luzatzeko aukerarekin.

- Programaren zabalkundea eta gizarteratzea.
  - Mintzalagun programa ezagutzera emateko estrategia eta komunikazio ekintzen plana nahiz kronograma egin.
  - Kronogramako eginkizunak burutu:
    - Komunikabideei deialdia bidali eta partaideen elkarrizketak argitaratu.
    - Kartelak egin.
    - Sare sozialetan oihartzuna eman: argazkiak, bideoak…
  - Urtean zehar kanpaina hauek egingo dira gutxienez:
    - Ikasturte hasierako izen-emate kanpaina.
    - Urtean zehar Mintzalagun online kanpaina.
    - Udako kanpaina berezia.

- Izen-ematea:
  - Izen-emateari dagozkion komunikazio lanak.
  - Interesdunei informazioa eman eta programa azaldu.
  - Izen-ematea bideratu, parte-hartzaile bidelarien euskara maila baloratu eta taldeak egin.

- Taldeak martxan jarri eta jarraipena egin:
  - Taldeak martxan jarri (helburuak eta dinamika azaldu).
  - Taldeei jarraipena egin: taldeen egoera, noiz elkartzen diren, bajak, gorabeherak…
  - Taldeak urrian jarriko dira martxan eta jarraipena egingo zaie, gutxienez, bertatik bertara hiru hilero (taldeak dinamizatuz) eta, telefonoz edo bide telematikoak erabiliz hilero.

- Ekitaldiak eta ekintza osagarriak: ondoko ekitaldiak egingo dira, gutxienez:
  - Hasiera eta amaierako ekitaldiak:
    - Ikasturte hasierako ekitaldia (urria amaiera edo azaroa hasieran).
    - Ikasturte amaierako ekitaldia (ekainean).
  - Klutur irteera bat (museora, zinemara, ikuskizun batera…)
  - Kirol irteera bat (mendi irteera, surfa probatzeko eguna, bizikleta vuelta, arrauna…)
  - Irteera gastronomikoa (pintxo pote eguna, sagardotegira edo txakolindegira irteera, kantu-afaria, Zumaiako olagarro eguna, Orioko bixigu eguna…)

- Programaren jarraipena: programaren jarraipena egiteko ondoko lanak egingo dira, gutxienez:

  - Bilerak Jarraipen Batzordearekin, gutxienez, 3 hilez behin. Bilera horietan taldeen jarraipen txostena aurkeztuko du esleipendunak; baita, gauzatu diren edo aurreikusita dituzten ekintza eta ekitaldien berri eman ere.
  - Sei hilez behin, Mintzalagun enpresa lizitatzaileak, Mintzalagun egitasmoari zuzendutako ordu kopuruaren xehakapena aurkeztuko du. Bata ekainean, ikasturtea amaitzearekin batera, eta, bestea urtarrilean, urteko memoriarekin batera.
  - Amaierako memoria: urte amaierako memoria aurkeztuko du esleipendunak, hurrengo urteko urtarrilaren 10a baino lehen.

- Kontratuaren prezioa: kontratuaren prezioan sartuta egongo dira Mintzalagun Programa koordinatu eta dinamizatzeak eragindako gastu guztiak, joan-etorrien eta antzeko kontzeptuen gastuak barne. Baita ekitaldietarako kontratatzen diren emankizunen kostua eta ekitaldiak eragindako bestelako gastuak ere.

- Eskualde izaera: Mintzalagun Programa garatuko da Udal Elkartea osatzen duten udalerrietan, hala nola, Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaian eta parte hartzaileak (bidelari nahiz bidelagunak) bost udalerri horietakoak izango dira. Beraz, taldeak egiterakoan hori kontuan izango da, eta bakoitzari bere herrian taldea izatea erraztuko

zaio, eta herri guztietan taldeak sortzeko saiakerak egingo dira. Nolanahi bost herri horietakoak ez diren pertsonak ere onartu ahal izango dira, kasuan kasu aztertuta.

- Taldeak: 3-5 pertsonakoak izango dira oro har. Dena den, kasuan kasu beste kopuru batzuetako taldeak ere egin ahal izango dira, eta online saioak egiten dituzten kasuan, bikoteak ere bai.

- Taldeen saioak: saioen helburua euskara praktikatzea da eta, beraz, jarduera ludiko eta egoera informaletan garatuko dira. Bidelagunen egitekoa ez da euskara irakasle izatea, baizik eta taldekide guztiek parte hartzea eta euskaraz egiteko sarea lantzen joaten laguntzea.

- Mintzalagun egitasmoaren aurkezpena, iragarki eta ekintza guztietan, baita hauen berri emateko nolanahiko euskarri guztietan ere, gutxienez, Urola Kostako Udal Elkarteko logoa agertuko da.

- Parte-hartzaile kopurua: 2023-24 ikasturtean, adibide gisa, 100 pertsona inguruk parte hartu dute programan, 27 taldetan. Azken urteotan erabiltzaileen kopurua 85-100 artekoa izan da. Horrenbestez, lehiaketa honen bidez esleitzen den kontratuak 60-120 partehartzaile arteko kopuruari eman behar dio zerbitzua, orri hauetan ezarritako baldintza teknikoak betez. Izen-ematea amaitu eta taldeak eratutakoan parte-hartzaile kopurua 60 pertsona baino txikiagoa baldin bada, esleipen prezioa %20 murriztuko da. Halaber, izen-ematea amaitu eta taldeak eratutakoan parte-hartzaile kopurua 30 pertsonara iristen ez bada, Udal Elkarteak erabaki ahal izango du programa bertan behar utzi eta kontratua amaitutzat ematea. Kasu horretan esleipendunak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

2.1 AURKEZTU BEHARKO DIREN DOKUMENTUAK

2.1.1 ESKAINTZA TEKNIKOAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK:

Eskaintza teknikoan ondoko dokumentu hauek aurkeztu behar dira (administrazio baldintzen orrietan datoz zehaztuta eskaintzan aurkeztu behar diren beste dokumentuak, hala nola, nortasuna eta kaudimena egiaztatzeko dokumentuak eta diru-eskaintza):

Eskaintza teknikoak atal eta eduki hauek izango ditu, gutxienez:

a. Programaren oinarri metodologikoak.
b. Programaren zabalkunderako komunikazio plana, kanpainak eta ekintzen kronograma.
c. Izen-ematea eta taldeen antolaketa bideratzeko proposamena.
d. Taldeen jarraipena egiteko modua eta maiztasuna.
e. Ekitaldi eta jarduera osagarrien proposamena.

f. Jarraipen Batzordearekin programaren jarraipena egiteko modua.
g. Proposatutako giza baliabideak eta bitartekoak: zehaztu behar da programa koordinatu eta dinamizatuko duen lantaldea eta lantaldeko kideen esperientzia gisa horretako programetan, baita duten euskara maila ere. Halaber, adierazi behar dira lehiatzaileak kontratuaren eskura jarriko dituen bitartekoak.
h. Lan guztien kronograma. Kronograma horretan zehaztuko da, halaber, lan-mota bakoitzerako aurreikusten den ordu kopurua.

2.2.2 KONTRATUAREN EXEKUZIOAN ZEHAR AURKEZTU BEHARREKOAK:

Hiru hilez behin, Mintzalagun Batzordeko bileran, Mintzalagun programako partaideen zerrenda eta egindako ekintzen txostena aurkeztuko du esleipendunak.

2.2.3 IKASTURTE AMAIERAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

Amaierako memoria: ikasturtearen amaieran amaierako memoria aurkeztuko du esleipendunak, uztailaren 10a baino lehen.